

telebista ♦ irratia


‘Betizu’ eta ‘Betizu Kluba’ haurrentzako saio berriak

Hiru behi birtualek aurkeztuko dute ETB1eko saio berria, Baleukok ekoitzia

Lore Agirrezabal / Donostia

Astelehenetik ostiralera **Betizu** saioa emango du arratsaldero ETB1ek Baleuko ekoiztetxearen eskutik. Larunbat eta igande goizetan, berriz, **Betizu Kluba** izango da. Telesailek, marrazki bizi-dunek, eskulanen tarteak, bideoklipen erakustaldiak eta kantu eta dantza lehiaketek osatuko dute haurrentzako saio berria.

BEHI II espaziontzia, **Betizu** behiaren espaziontzia, laister iritsiko da Euskal Telebistara. Bere etorrerak marrazki bizidun mordo bat, haurrek gustokoen dituzten telesailak eta lehiaketak ekarriko ditu. Urriaren 2an hasiko da **Betizu** haurrentzako saioa. Hiru behi birtualek aurkeztu eta gidatuko dute saio berria: **Betizu** eta **Betimu** behi esukaldunek, eta **Betisuis** suitzarrak. Eta hemendik aurrera, Euskal Telebistako haurrentzako saio gzutiak beraiek gidatuko dituzte. Beren espaziontzian munduko txoko guztietara gerturatuko dira, eta hor nonbait dagoen irla batean Xabier Mendia izango dute zain. Berak sukaldaritza, asmakizunak, magia, musika eta esperimentuak erakutsiko dizkigu. Irudi birtuala (hiru behiak) irudi errealekin nahastuko dira **Mikrotxokoa** deitu tarte



Betizu eta **Betimu** behiak ETB1eko haurrentzako saio berriko aurkezle birtualak dira.

honetan. Horrez gain, beste atal bat ere izango du saioak, **Betimu** izenekoa. **Betimu** herri-herri ibiliko den karaokea da, herri bakoitzean bi talde lehiatuko dira kantuan, dantzan eta bertsotan. Tarte hori Ilaski Serranok aurkeztuko du baina **Betizu**, **Betimu** eta **Betisuis** ere berekin izango dira (kasu honetan ez dira pertsonaia birtual moduan agertuko). Larunbatetan, berriz, **Betizu arana** izango da. Hemen, hamar lagunek osatutako bi talde lehiatuko dira eta sainbat gauza jolasean ikasiko dituzte haurrek pertsonaia

hauek ari dirutan emango dute, berau ikasketa bidaian edo beste zerbait antolatzen gastatu ahal izango dute. Hamalau urte arteko haurrek hartuko dute parte horretan. Beste tarte batean mundu zabalean entzundako ipuinak kontatuko dizkigu Mikel Martinezek.

Erronka berria ETBk

Hiru dimentsiotako irudiak eta benetako irudiak nahastuko dituzte haurrentzako saio berrian. Baleuko ekoiztetxeko Edu Barinagaren iri-

tziz, «ETBn, haur programazioan izan den erronkarik handiena da hau». Barinaga hainbat urtetan arduratu da haur programazioaz eta bere ustez hau da orain arte egin den saiorik «borobil eta potoloena». Bestalde, **Betimu** musika taldea ere badago. Klubak antolatzen dituen jaietan ibiliko dira hauek, eta Gabonetarako bi disko ateratzeko asmoa dute. Horrez gain, **Mikrotxokoa** egiten den guztiarekin hainbat liburu argitaratuko dituzte.

Hemendik bi astetara hasiko da, beraz, **Betizu**.

laburrean

‘La central’ saioan hainbat gudatan lanean ibili diren kazetariekin hitz egingo dute

Jesus Vazquez aurkezleak TVEeko Evaristo Canete kazetaria, Antena3ko Javier Mellado, Colpisako Javier Fernandez Arribas eta *El Pais*-eko Ramón Lobo elkarrizketatuko ditu gaur **La central** saioan, Kazetari hauek guztiak guda-kazetaritzan ibili dira hainbat urtetan, eta gaurko saioan urte horietan bizitakoak kontatuko dituzte. Gaueko 23:45ean izango da Antena3 katean.



Zakur-hiltzaileei buruzko dokumentala M6 katean

Frantziar zakur arraza arriskutsu batzuen (pit-bull, rotweiler...) salmenta debekatu dute. Halaber, zakur horien jabeak udal-txetan zakurraren errejistroa egitera behartzen ditu, baita berauek esterilizatzea ere. Zakur arraza hauek zurutu eta hildako dezente eragin dituzte. Honi buruzko dokumentala eskainiko Frantziako M6 kateak gaur iluntzeko 20:50ean, *E=m6 Special* saioan.

Inazio Mujika idazlea gonbidatuko dute ‘Forum’ saiora

Gerezi denborak eleberria idatzi berri du Inazio Mujikak, eta horri buruz mintzatuko dira gaurko **Forum** saioan. David Barberok aurkeztu duen saioan izango da, beraz, Inazio Mujika Iraola idazlea. Baina idazle ez ezik, argitaldari ere badenez, Alberdania argitaletxearen nondik-norakoan inguruan ere mintzatuko dira **Forum** saioan, goizeko 10:00etan,



PACO TORRENTE / EFE

‘Periodistas’ saioak seigarren denboraldia hasiko du.

Tele5 kateko telesail arrakastatsuenetakoa bat hasiko da gaur, **Periodistas**. Besteak beste, Alex Angulo aktore euskaldunak eta Jose Coronadok parte hartzen duten telesailak seigarren denboraldia hasiko du. Hirurogeitazortzigarren atala da gaurkoa, *Viento sur*. Gaueko 22:00etan hasiko da.